



## **Antolakuntzan laguntzen al dute gurasoek...?**

Lehen Hezkuntzako haurrekin lan egiten denean, gurasoen laguntza dagoela ukaezina da. Gurasoak dira astean zehar kiroldegira ekarri, jaso eta larunbatero beraien seme alabak partidua duten lekura eramaten dituztenak. Beraz, desplazamendu aldetik ezinbestekoak dira guretzat. Honetaz gain, gurasoekin elkarrekintza izaten dugun etengabeko egoerak sortzen dira; bere seme alabekin dituen arazoak, zigorrak, komentarioak, oharrak... (guretzat oso informazio baliagarria da). Eta laguntza eskatu dugunetan jaso dugun erantzuna positiboa izan da.

Bestalde, Eskola Kiroleko Batzordeetara Guraso Elkarteko kide bat etortzen da eta gure egiturako erabakietan parte hartze aktiboa du.

Agian, denak elkarrekin egiteko ekintza mota batzuk antolatzea ona izango litzateke gurasoen integrazioa osoa izateko: guraso eskola, irteerak, txapelketak...